



Frontenis Txapelketako irabazleak, erabakita

BERROBI ▶ Goitia-Beloki mutiletan, Onsalo-Garziarena nesketan eta Niko Artola banaka gailendu dira

OMENALDIA ▶ Jon Ander Izagirre txapelketaren sortzaileetako bat omendu zuten finalen ostean ▶ 6




Frontenis Txapelketan lehen lau postuetan geratu diren jokalariaik, txapelketaren amaieran. M. SOROA

TOLOSA ▶

Gorringoren 'Joxepi dendaria' hilaren 16an

Igarondok antolatu du, «merkataritza sustatzeko» ▶ 2

LEITZA ▶



PABLO FEO

Pablo Feok herriko ataurreen egutegia egin du

12 argazki bildu ditu eta dagoeneko 20 ale saldu ditu ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Mutitegi eta Urkizu arteko paraje ederretan barrena

Xabier Lizardi olerkigileak inspirazio leku bezala aukeratu zuen ▶ 4-5

ZAS
soinu ikastaroa
Informetika musikala (Cubase). Grabaketa eta masterizazio profesionala. P.A. eta monitoreak. Eta abar.
943 65 35 35
www.sointek.net

BIHAR Zinema etxean 2
tangoi rekin
8 DVD euskaraz
berria
+ 4,50 €
Aukera ezazu, BIZI euskaraz berria

TOLOSA ▶

Gaur, Inmakulada eguneko kontzertu berezia

Tolosako Udal Txistulari bandak Inmakulada eguneko kontzertu berezia eskainiko du gaur. Ekitaldia meza nagusiaren ondoren izango da udaletxeko arkupeetan. Txistulari bandarekin batera joko dute Xabier Zelaia eta Joakin San Sebastian tronpetajoleek. Bestalde, zuzendari lanetan ariko da Iñaki Letamendia Loiniz.

TOLOSA ▶

Kalean da Anestesiaren disko berria

Anestesia taldeak disko berria argitaratu zuen azaroaren 24an. Bonberenea Ekintzak plataformaren eskutik. *Terapia* izena du zarauzkar hauen bosgarren disko luzeak. Bere ohiko bidetik aldendu gabe, doinu sendoekin eta indarberriturik dator. Joan den urtean hasi ziren grabaketekin Zarauzko fidelenea estudioan: Ibon, ahotsa; Beloki, bateria; eta Mikel Kazalis, gitarra, baxua eta ahotsa. Bestalde, Dani, Anestesiako lehenengo basu jolea, taldean da berriro, eta jadanik prest daude han eta hemen kontzertuak eskaintzeko.

TOLOSA ▶

Harizpe elkarteak baditu garaileak, udazken jokoetan

Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak antolatutako udazkeneko jokoak amaitu dira dagoeneko. Puntuari Zubeldia anaiak izan ziren garaile, dominoan berriz, Iglesias eta Rodriguezek osatutako bikotea. Tutean, Wences eta Brita eta tokan, Fidel Benito.

PILOTA ▶

Senior mailakoetan bi garaipen

Pilotako Gipuzkoako Txapelketako joan den asteburuko partidetan, Rurrera-Saiazek bi garaipen lortu zituen, biak ere, senior mailakoak. Lazkaoen kontra 22-12, eta Goierrikoen aurka, 22-2. Bi derbi jokatu zituzten Zapiti Iturriren aurka, baina hauetan amezketarrak izan ziren garaile, Bietan, emaitza 22-7koa izan zen. Senior mailako Alde Zaharrakoaren partidari, 22-9 galdu zuten eskualdekoek. Azkenik, kadete mailako bikotea Hernanikoen kontra aritu zen eta 22-14 galdu zuen. Bestalde, aste honetan ez da partidarik jokatu.

iragarki laburrak ▶

LANA

Iturgina. Iturgin lanetarako pertsona bat behar da.
Telefonoa: 656 41 68 08.
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi, 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko lllantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.

TOLOSA ▶

Shanti trofeoan izena emateko aukera

Abian da XXV. Eguberrietako Shanti Trofeoa Txapelketa. Interesatuak hil honen 15era arte eman ahal izango dute izena. Hiru maila ezberdin egongo dira. Alde batetik, infantil mutilak eta neskek egongo dira (1993tik 94ra jaiotakoak). Bestetik, alebina ariko dira, 1995etik 96ra bitarte jaiotakoak. Eta azkenik, benjamin mutilak.

ALEGIA ▶

Bihar, Intxurreko neskek eta lurraldekakoak

Intxurreko neskek Zestoaren aurka jokatu dute bihar, 18:30ean. Lurraldekako mutilak 17:15ean Ikasberri izango dute aurkari Azpeitian. Asteazkenean Alegiko kadeteek bost gol sartu zizkioten Idiazabalgoei. Jubenilek aldiz, 2-1 galdu zuten Idiazabalgain kontra.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Ditzuzun kexa, albiste, iradokizun nahiz iritziak emateko aukera zabaltzen dizu atal honek. Hau argitaratu nahi izanez gero, NAN zenbakia eta izena eman beharko dituzu testuaren fidagarritasuna ziurtatzeko.

TOLOSA ▶ EKONOMIA



Atzo, ekitaldiaren aurkezpenean, Gorringo taldeko Angel Alkain eta Igarondo elkatekoak. E. EZEIZA

Gorringoren 'Joxepi dendaria' ikusgai

Igarondo Merkatarien elkarteak antolatutako ekitaldien baitan, antzerki saio hau taularatuko dute hil honen 16an

ESTI EZEIZA

Igarondo Tolosako Merkatarien elkarteak merkataritza sustatzeko antolatzen dituen ekitaldiekin jarraituz, bi proposamen berri dakartzta hurrengo larunbat arratsaldeetarako. Eguberrien aurretik, jende «kontzientziaztea» nahi dute, eta egun horietako erosketak egiteko garaian, saltoki handietara jo beharrean, «betiko» denda txikietara joatea.

Lehenengo emanaldia hil honen 16an, 17:00etan izango da. Gorringo antzerki taldearen eskutik, *Joxepi dendaria* izeneko lana ikusi ahal izango da. Leidor antzokian antzeztuko duten saioan denda txiki baten istorioa kontatzen da. Angel Alkain, Gorringo taldeko ki-dearen esanetan, «mezu zuzen bat duen obra da: denda txikietan komertzio handietan ez bezala, produktua gain, beste zerbaite saltzeta eta eskaintzen da». Aktorearen ustetan, «di-ruarekin erosi ezin daitekeen beste goxotasun eta komunikazio bat dago». Antolatzaileek ekitaldiaren aurkezpenean adierazi zuten, kasualitatez aukeratu zuten antzezlan hau, baina, era berean, «lan honek ederkari isladatzen du denda txikien egoera».

Joxepi dendaria Maria Asun Landak idatzitako obra bat da, eta Gorringo antzerki taldeak antzerkirako moldaketa egin

EGITARAUA ▶

HILAK 16, LARUNBATA

Antzerkia. Gorringo taldearen *Joxepi dendaria* antzerki emanaldia ikusi ahal izango da Leidor antzokian, 17:00etan.

HILAK 23, LARUNBATA

Kontzertua. Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrakoen kontzertua izango da Zerkausian.

du. Istorioan kontatzen dena hurrengo da: egilearen izebak denda txiki bat zuen, baina itxi egin behar izan zuen.

Hilaren 16koa, Tolosan obra hau taularatzen den bigarren aldia izango da. Lehenengo saioa Beasainen eskaini zuten Gorringokoek, eta datorren udaberrian, beste hainbat herri-ritan ere eskainiko dute. Antzerki taldekoek mezuari eman nahi izan diote garrantzia, hala, «Landak idatzi zuen bezala, hau da, parafernalia handiegirik gabe» aurkezten dute antzerkia ere.

Igarondo Merkatarien elkarteak antolatutako saio hau familia guztiari zuzendua dago. «Alde batetik, umeek ongi pasatzeko aukera izango dute, eta bestetik, gurasoak mezuarekin geratu ahal izango dira», gaineratu zuen Angel Alkainek aurkezpenean. Aktorearen

esanetan, «istorio bat kontatzen da, baina azken batean, salaketa moduko bat ere bada-goa».

Sarrerei dagokionean, Bertalkutxan edo leihatilan bertan eskuratu ahal izango da lau euroren truke.

Akordeoi emanaldia

Azaroaren 4rako antolatuta zegoen Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrakoen kontzertua, azken orduko arazo batzuk zirela eta, bertan behera geratu zen. Hala, orduan agindu zuten bezala, ekitaldia hilabete bat beranduago bada ere, gauzatuko da. Orkestrakoen ahal zuten egun bat aurkitu arte itxaron behar izan dute antolatzaileek, eta azkenik, egun hori, hil honen 23a izango da.

Azaroan hasi ziren Igarondo elkarteak antolatutako merkataritzaen sustapeneko ekitaldiak. Lehenengoa, ipuin kontalaria izan zen, eta honek arrakasta handia lortu zuen. Izan ere, hasiera batean saio bakarra eman behar bazuen ere, haur asko hurbildu zirenez, arratsalde berean hiru egitea erabaki zuten. Hurrengo ekintzetako bat, txotxongiloen tailerra izan zen. 24. Nazioarteko Txotxongiloen Jaialdiaren harira, haurrek panpinak egiteko aukera izan zuten joan den larunbatean, Lope Mendizabal plazan.

ALEGIA ▶ GAZTETXEA

XIX. urteurrenarekin sagardoa eta musika hilabete baten buruan

Betagarri eta Eraso dira aurtengo kontzerturik handienak, eta 'Alegi la nuit' eta zahagi sagardoa errepikatuko dituzte



Alegiko gaztetxean iaz egindako afari-meriendan *Alegi la nuit* saioa ikusteko prestatu ziren. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Iritsi da Alegiko Gaztetxearen XIX. urteurrena. Ospatzeko hilabete batez hainbat ekitaldi antolatuta dituzte Gaztetxeok. Honez gain, asteazkeneroko zine-kluba izango da: hilaren 13an *La pesadilla de Darwin*; hilaren 20an, *Laburmetraiak*, 27an, *El taxista full* eta urtarrilaren 3an, berriz, bi saio: 20:30ean *Garras humanas*, eta beranduago *Freaks, la parada de los monstruos*. Tartean, zahagi sagardoa izango da.

Aurtengo kontzerturik indartsuenak, Betagarri eta Eraso izango dira.

BIHAR

19:00. Zerbeza perie festa.
21:00. Jaialdiko lehen zahagi sagardoa.

HILAK 15, OSTIRALA

21:00. Asteburua hasteko zahagi sagardoa.

23:00. Betagarri taldearen kontzertua.

Ondoren. Aritz Sound System.

HILAK 22, OSTIRALA

21:00. Zahagi sagardoa.

23:00. Futbolin txapelketa.

HILAK 23, LARUNBATA

14:30. Bertso bazkaria: salda, babarrunak odolkiarekin, gaztainak, eta saiheskia.

Ondoren. Poteoa Mulanborekin.

21:00. Zahagi sagardoa.

22:30. Eraso rock taldea eta talde sorpresa.

HILAK 24, IGANDEA

01:00. Dj Friday 13 eta Dj Guti gau osoan zehar.

HILAK 28, OSTEGUNA

21:00. Zahagi sagardoa.

Ondoren. *Alegi la nuit* saioa.

HILAK 29, OSTIRALA

21:00. Zahagi sagardoa.

23:00. Playback.

URTARRILAK 3, ASTEAZKENA

21:00. Zine kluba: *Garras humanas*.

Ondoren. Zahagi sagardoa eta beste film bat: *Freaks, la parada de los monstruos*.

URTARRILAK 5, OSTIRALA

21:00. Zahagi sagardoa.

22:30. Mus Txapelketa.

URTARRILAK 6, LARUNBATA

21:00. Gaztetxeko azken zahagi sagardoa.

23:00. Sharon Stoner eta Keike taldeen kontzertuak.

ALEGIA ▶ KULTURA



Herria, Pilartxo Elosegiren margolanetako bat. N. URBIZU

Eskualdeko hainbat txoko jubilatuen tabernan

Pilartxo Elozegi tolosarraren margolanak astlehenera arte izango dira ikusgai

N. URBIZU

Alegiko jubilatuen tabernan hilabetero erakusketak izaten dira ikusgai. Azaroan zehar eta astlehenera arte Tolosako Pilartxo Elosegiren margolanak daude ipinita.

Mihisearen gainean daude margotuta, oleoa erabilia. Ikus daitezkeenak paisaiak dira, naturakoak eta herri edo hirietakoak. Osozara 15 lan daude Alegiko jubilatuen tabernan: Donostiako kaia, Paisaia, Idiakez jauregia, San Blas ermita, Balda jauregia,

Ilunabarra Donostian, Kristina-enea parkea, Zuhaitzak neguan, Herria, Nafarroako herria, Kostako paisaia, Tolosako Zerkasua, Udarea loretan, Etxea eta Zumardi Handia.

Margolanetan koloreari eta formari fidelotasunez egiten ditu, gizakiaren begiak koloreak jasotzen dituen moduan, hain zuzen.

Honengatik, estiloari dago-kionez, errealismoari egiten dio erreferentzia, naturalasunari, alegia. Horretarako pintzelada txikiak eta zehatzak erabili ditu.



Donostiako ikuspegi aski ezaguna: Kontxa. N. URBIZU



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Urteurrenak ▶

Miguel Aguirrezabala Murua

(2005eko abenduaren 10ean hil zen)

Zure gurasoek
ez zaituzte ahazten

Meza ETZI izango da, 11:15ean, Alegiko San Juan Bautista elizan.

Francisco Aguirrezabala eta Josepa Murua

ALEGIAN, 2006ko abenduan

INGURUMENA ▶



Lizardirekin paseatzen

Mutitegi eta Urkizu arteko paraje ederra bisitatzeko gonbita luzatzen dugu, naturaz eta olerkiak gozatzeko toki paregabea



Natura. Lizardik bere olerkietan ghitien erabili zuen gaia da. Euskal paisaiaren ederra bere labean goritu, hausnarrean hezurramitu eta bizidun bhurtu zuen. Euskaldunen sustrai eta langai den paisaia liluragarria marraztu zuen bere olerkietan. *Non-nai euskal-oiartzun orri-mugarño, dabetesadan ibarrak lahotan daude!o! Aran ta muno gariez Aralar aundia, euskotarren zaindari Mikielen mendia.* s. 302ko 302ko

JOXEMI SAIZAR

Udazkenaren hondarrean, Tolosaldeko paraje eder batez gozatzeko gonbita luzatzen dizuegu. Ez gara oso orijinalak izan. Aspaldi auzeratu baitzuen Xabier Lizardi olerkigileak (Zarautz 1896-Tolosa 1933) inspirazio leku gisa bere paseoetarako.

San Esteban auzoan, Mutitegi baserritik gora, Urkizura iritsi baino lehenago aurki dazteke Lizardiren omeneko orotarrria. 1933ko irailaren 17an jarri zuten, Gerra Zibilean bota eta 1961ean berriro altxatu zuen euskaltzale talde batek. Luis Larrarte harginak erakitta. Talde bera Laskorain ikastola sortzeko lanetan ari zen eta elkarreko sortu zuen. Lizardi izena aukeratu zuten, Antonio Maria Labaienek proposatuta.

Hainbat omenaldi egin zaito Lizardiri. 1983an, jaiotzaren 50. urtemugan, Lizardi elkarteak eta Udalak egin zituen. Orduan bere omeneko eskultura enkargatu zioten Eduardo Txilidari. Lizardiren leihoo egin zuen, jarri zuten, gero kondu egin zuten eta 1996an —bere jaiotzaren mendeurrenean, beste omenaldi batean— berriro jarri zuten Aranburu jauregiaren lorategian. Urte berean egin zituzten zuzerako olerki euskarriak bere orotarraren inguruan.

Naturaz eta olerkiak lasatsan edertrean gozatzeko toki paregabea dazue. Edozein urte giron.



Basoa. Basoaren maitalea zen olerkaria: kilberra kantari, eguzkia irribarrez, bolarrearen doina, emekotasa sailko, inguma hegan, urtza nagai loretan... azaltzen du. Pinu beltzak ez du estalko Lizardik utzitako baso iburafidatua. s. 302ko




Aberria. Gai hau ere asko erabili zuen bere idatzieetan. Pizkudea izan zuen euskal kulturak bere garapen eta Tolosan aurkitu zuen Lizardik kultur giro egokia. s. 302ko



Euskara. Joria, oparoa eta aberatsa erabili zuen. Euskotaren erti iturburunik narona deitu zion. Larreko hizkuntza jakintza hegoez jaso zuen Xabier Agirre zarautzar-tolosarrak. s. 302ko



Orotarrria. *Oi zein den ituna / beera bear au! / Nik ez nai eguna / biurtzerik gau! bere olerkia ageri da Lizardire omeneko orotarran. Bere lagun talde batek erabili zuen 1933an, Gerra Zibilean bota egin zuten eta 1961ean berriro altxatu zuten.* s. 302ko



Lana. Bi olerki liburu utzi zituen: *Biotz begietan* eta *Umezurtz olerkiak* 54 olerki guztira. Prosa ere erabili zuen. Izadia, heriotza, aberria eta euskara dira erabiltzen dituen gai nagusiak. s. 302ko



Olerkia. Aular prosan izan zena izan zen Lizardi olerkian. Estrofa eta metrika zaharrak hautsi zituen, euskal poesiaren gailurreraino igo zuen mintzaira poetikoa, poesia metafinkora pasatuz. Hizkera bisuala, plastikoa. Hemi poesia, poesia idealista egin zuen. Euskal lirikaren maisu bilakatu zen. s. 302ko

BERROBI ▶ KIROLA

Inoiz baino jokalaria gehiago XV. Frontenis Txapelketan

Onsalo-Garziarenak, Goitia-Belokik eta Artolak lortu zuten garaipena, ondoren; Jon Ander Izagirrek omenaldi xumea jaso zuen herritarren eskutik

MADDI SOROA

15 urte pasatu dira Berrobin Frontenis Txapelketa antolatzen hasi zirenetik. Urterik urte jende gehiago izaten da parte hartzen, eta txapelketa herrikoia izatetik, arrakasta handiko txapelketa entzutetsu izatera pasatu da. Tolosaldeko jokalaria ez ezik, kanpotik etorritakoek ere hartzen dute parte; aurtun, esaterako, Bergara, Olite edota Iruñetik etorritako jokalaria izan dira tar-tean.

Aurtun jokaturiko Berrobiko XV. Frontenis Txapelketak atzo izan zuen amaiera. Azaroaren 18an hasi eta atzora arte, frontenis zalez bete da herria. Hoztari aurre eginez eta pilotaren danbatekoa konpainia hartuta, duen onena eman du XV. Txapelketak.

Egunak joan egunak etorri, partidak jokatuz joan dira parte-hartzaileak, garaipena, ordea, bakarrak eraman duela. Atzo jokaturiko finalean, eta binaka nesketan aritutakoen artean, Naiara Onsalo eta Lierni Garziarena izan dira garaile 30 eta 14 irabazi zutelarik finala Amaia Agirre eta Nagor Lizardiren aurka.

Mutilei dagokionez, binaka Mikel Goitia eta Mikel Belokik irabazi zuten finala 30-9 Oskar Ramirez eta Xabier Romeroren aurka. Eta azkenik, mutiletan binaka aritutakoen artean, eta



Aurtengo edizioan inoiz baino neska gehiagok hartu du parte, irudita, atzo jokaturiko finala. MADDI SOROA

nola ez, Nikolas Artola izan da aurtengo garailea 30-21 garaitu duelarik Mikel Goitia. Aipatu, parte hartzen duen eta irabazten duen 13. aldian duela

aurtengoa. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, aurtengo edizioak ukitu berezia izan du, omenaldi ekitaldia egin baitzieten Jon Ander Iza-

girreri. Txapelketa jokatu eta sari banaketaz gain, bertsoak kantatu eta irakurragia eskaini zioten Izagirreri frontoian senitarteko eta herritarrek.

NIKOLAS ARTOLA ▶ FRONTENIS JOKALARIA

«Irabaztea ondo dago baina azkenerako pixka bat aspertu egiten zara aurkari berdinekin jokatzen»

Berrobiko Frontenis Txapelketan parte hartu duen bakoitzean, txapelarekin etxeratu da Nikolas Artola, 12 aldiz, hain zuzen ere.

Noiz hasi zinen frontenisean? 14 urterekin hasi nintzen. Hasieran eskuz jokatzen nuen baina ona ez nintenez frontenisera pasatu nintzen [kar, kar].

Realeko taldearekin jokatzen duzu, ezta?

Tarteka binaka jokatzen dut Iker Lizardirekin batera. Ez gaituzte jokatzeri behartzen eta gustuz jokatzen dugu, normalean Gipuzkoa eta Euskadi mailako txapelketetan hartzen dugu parte. Zaletu gisa aritzean gara.

Berrobiko Txapelketan, parte hartzaile mordoia izan da aurtun.

Bai, inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan da aurtengoan, ia 190 lagun. Hori oso positiboa da, herriari izena ematen baitio eta giro ona sortzen da herrian. Oso pozik gaude horregatik.

12 aldiz jokatu eta 12 aldiz irabazi duzu.

Banaka bada oso ondo dabilen jendea, baina momentuz

behintzat inork ez nau irabazi. Irabaztea ondo dago baina azkenean pixka bat aspertu egiten zara, beti jende berarekin aritzen baitzara lehian.

Aurtun 13. aldiz duzu, zorte txarreko zenbakia omen...

Ez iezadazu horrelakorik esan! Ea orain ez dudan irabazten, [kar, kar].

Argi dago ez duzula aurkari-rik.

Beno. Jende askok ondo pasatzeko ere hartzen du parte. Finalaren ondoren afaria egiten baitugu eta oso giro ona izaten da guztion artean.

Hurrengo urtean berriro ere garalle izango zaitugu?

Ikusiko banu herrian badela gazteren bat ongi dabilena parte-hartzeari utziko nioke,

SAILKAPENA ▶

Neska binaka.

1. Naiara Onsalo-Lierni Garziarena
2. Amaia Agirre- Nagore Lizardi
3. Mireia Lezea eta Nekane Onorato
4. Leire Jauregi eta Oihane Bergara

Mutilak binaka.

1. Mikel Goitia-Jorge Beloki
2. Oskar Ramirez-Xabier Romero
3. Nikolas Artola eta Iñigo Aurkia
4. Daniel Rodrigo eta Manu Oliveira

Mutilak banaka.


1. Niko Artola
2. Mikel Goitia
3. Iban Zabaleta
4. Eneko Goenaga

Izagirre beti gogoan

Badira hamar urte Jon Ander Izagirre zendu zela; haren presentzia uneoro present da, ordea, Berrobiko kaleetan barna eta baita frontoiko paretetan barna ere.

Berri izan zen Frontenis Txapelketako sortzaileetako bat, Gaztetxe, pilota eta pala munduan bultzadak eman zituen laguna izan zelarik ere. Aurtun, haren omenez 10 urte bete ditu txapelketak eta ez nolana gainera, inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan baita raketa eskuan hartuta pilota astintzen.

Berrobiko herriak, lehen, orain eta beti izango du gogoan Jon Ander Izagirre. ◀



Salgai (Tolosa) Larramendi kalean, Vaih-en parean. pisu polita. 60m2. 2 logela, egongela, sukalde osatua, bainugela osatua eta 20m2-ko terraza.

Salgai (Berastegi) Familia bakarreko etxebizitza natura bete-betean. Bista oso politak.

Salgai (Tolosa) Larramendi duzuan etxe zoragarria. Garage bikoitza eta itxia. Lorategia ere badu.

Salgai (Tolosa) Aparta. Gernikako arbolan. 93m2. Sartzeko prest. Garajea aukeran.

Salgai (Tolosa) Gorosabelen eraikuntza berrikoa. Estreinatzeko.

Salgai (Tolosa) Alde zaharrean 75m2-ko pisu polita eraberritua.

Salgai (Tolosa) Alde zaharrean 50m2. Atiko apaina estreinatzeko reformatu ostean. Gazteentzako egokia. 191.903 euro.

943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50

KONTSU TABERNA
Asteburuko menua
Plater konbinatuak
Astearteak itxita
Orexa • 943 68 21 54



HITZA

urte asko baitira jada. Bestetik, hainbeste urtez jokatzen aritu ondoren pena ere ematen du ez jokatzeak baina... ◀

LEITZA ▶ KULTURA

Herriko ataurreen koloreak

Pablo Feok, Okile tailerreko monitorea, Leitzako ataurreen 12 argazkiz beteriko egutegia atera zuen azaroan eta jada 20 ale inguru saldu ditu

NAIARA GARZIA

Pablo Feok, Bilbokoa izan arren, hamar urte baino gehiago daramatza Leitzan. Okile tailerreko monitorea dela jakina da herrian, baina beharbada argazkilaritzarekiko duen zaletasuna ezezagunagoa da. Bere zaletasun horri eskerrak aurten egutegi bat egin du eta bertan Leitzako ataurreak bildu ditu.

Ez da egutegi bat ateratzen duen lehenengo aldia, lehenengo urtean beste bat egin baitzuen. «Duela urte pare bat Maimurren egutegi bat ikusi nuen, zakar xamarra, ez zen beste munduko ezer. Amorrua eman zidan argazki horiek ikusteak eta nik nituen argazkiekin zer-bait polita egitea pentsatu nuen».

Bere xumetasunean ez dela argazkilari profesionala azaldu du Feok: «Nik argazkiak egiten ditut eta gero politenak aukeratzen ditut». Zenbait argazkitan erreparatu ondoren, al-daketa batzuk ikusiko ditu atetan, izan ere, behin argazkiak aterata moldatu egiten ditu Pablo Feok. «Normalean argazkia atera eta gero soberan dagoena kentzen dut: kableak eta horrelakoak. Ordenagailuko programa batekin garbitzen ditut, Photoshop-ekin».

Argazkilaritza munduan alor ezberdin asko daude: argazki sozialak, paisaiak... «Niri bereziki panoramikak egitea gustatzen zait». Hori dela eta, Francisco Javier Mujikak 1968an herriari ateratako panoramika bat topatu ondoren gauza bera egitea otu zitzaion. Horrexegatik, Okabio azpira igo zen, ikuspuntu bera izateko. Mujikak aukeratu zuen garai bera hautatu zuen argazkia ateratzeko argazkilariak, «itzalak eta horrelakoak ez aldatzeko eta baratzak ere egoera beretsuan egoteko».

Honetaz gain, haurtzaindegiko umeekin ere lanen bat edo beste egin du. Haurrei argazkia atera ondoren, denak elkartu eta adin eta ikasgela bereko ume guztien argazkiak bildu ditu, oroigarri bezala.

Iaz arrakasta handi izan zuen eta 35 egutegi saldu zituen eta aurten egutegia azaroan atera zenetik, dagoeneko 20 inguru saldu ditu. Egutegiaz gain, poster bat ere egin du eta eskuratu nahi duenak Maimurren erostez.



Eztebenea. Ate hau da Pablo Feok egin duen egutegian azaltzen den ate itsu bakarra. Aspaldiko urteetan herritarrek horrela ezagutu dute. HITZA



Txubia. Ataire gorri deigarria. HITZA



Dendarinea. Berdearen alaitasun puntua. HITZA



Gogorazaundu. Ebe hau urte askoz huntzak erabat estalita egondu da, leihoak eta atek soilik ageri ziren. Azkeneko urte hauetan ebea biluzik dago, herriko gehienak bezalaxe. HITZA

AZPIEGITURAK ▶

Roncalesa eta Leitzaranen parada berriak

Errotondako lanengatik trafikoa aldatuko dute astelehenean

N. GARZIA

Gazpillozuloko erreka bide-ratzeko lanak astelehenean hasiko dituzte. Herriko errotondan konponketak egin behar dituzte, eta zeharbidea libre uzteko autobus paradak lekuz aldatzea erabaki du Udalak. Manuel Lasarte kalean kokatuko dira, Landa Hostala eta Guria Tailerraren parean. Beraz, Roncalesa edo Leitzaran hartu nahi duenak hara jo dezala.

Duela aste pare bat urak gainezka egin zuenez, hau berriro gerta ez dadin lehenbailehen hasiko dira lanak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Iruira.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autobus: 948 221015

▶ Taxis: 670420

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Belabieta Udal kiroldegia zabalik egongo da gaur eta bihar, goizeko 10:00etatik 13:00etara bitarte.

Tolosa. Txuleta festak, Zerkausian, 20:00etatik 22:00etara. Orue, Julian, Burrentzi eta Nikolas erretegiatiko sukaldariak afaria eskainiko dute. Botarri, Bidebide, Beti-Alai eta Astelena jatebeteetan ere emango dituzte afariak. Igandera bitarte izango da zabalik (larunbatean eta igandean, bazkariaK izango dira).

ZINEMA

Tolosa. 17:00etan, *Txorixkoak* filma ikusteko aukera izango da, Leidor aretoan. Sarrerak 2 euro balioko du.

Tolosa. *Los Borgia* filma izango da ikusgai Leidorren, 19:30ean. Sarrerak 2 euro balioko du. 13 urte gorakoei zuzendutako emanaldia izango da.

ERAKUSKETAK

Alegia. Hilaren 10era arte Pilarxo Elosegiren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira, asteartetik igandera, tabernaren ordutegiaren baitan.

Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leizta. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Ebebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Asteko onena*.
 21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Erantzun eskasa»

ANOETA ▶ Iragan astean amaitu zen Mendi Astea; astebetetz ekitaldi ugari antolatu dituzten arren, jendeak «ez du gehiegi parte hartu»



ERREDAKZIOA

Astebetetz mendia izan da hizpide Anoetako Mendi Astearen baitan. Udalak diaporamak, GPS ikastaroa, mendiko medikuntza eta lehen sorropenetako ikastaroa eta mendi irteerak antolatu ditu. «Ekintzak politik eta interesgarriak izan baziren ere, jendearen erantzuna nahiko eskasa izan da; aitzitik, partaideak, oso interesgarriak izan dira».

Hala ere, izan da ekitaldi arrakastatsurik, GPS ikastaroarena, hain zuzen ere. 14 pertsonak hartu zuten parte eta bertan ikasitakoak praktikan jarri zituzten mendi irteeran.



GPS ikastaroan —goian— ikasitakoak praktikan jarri zituzten mendi irteeran —beheran—. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Manex Balerdi (Tolosa). Gaur 3 urte. Zorionak ebekoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza TOLOSAN
 Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza LEITZAN
 Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...